

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2024ko errolda jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2024ko errolda fiskala, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, hura aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke erre-kurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Zerga ordaintzeko epea 2024ko martxoaren 20tik maiatzaren 20ra artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 19an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO**